

INTXAURRONDOA (Nogal Juglans L.)

Altuera ertaineko zuhaitza da, 30 metrorainokoa, adar lodi ugari eraturako adaburu zabal eta biribildua daukana. Enbor lodia; leuna eta grisexka, adinarekin gainetik zartatzen dena. Hostoak usaidunak dira eta izozteak ondo jasaten dituzte erorkorrak bait dira.

Apiril maiatzean loratzen da, hostoak zabaltzen diren aldi berean eta udaren azkenaldera eta udazkenean heltzen dira. Fruituak, osatzen ari direna, berdeak eta zuriak agertzen dira eta umotzean estalki berdea galdu egiten dute eta benetazko hazia, intxaurra alegia, lau gingiletan eta burmuina tankeran agertzen da.

Jatorriz Asia Erdikoa eta Europako Hego ekialdekoa da baina Euskal Herri guztian aspalditik landatzen da.

Hemen Lezon, gehienbat baserri ondota ikus ditzakegu eta landare gazteak, Ijurko auzo inguruan, Pisbe auzoan eta Torrejil baserriko herribidean.



*Kabite baserri ondoko
Intxaurrondo eder
eta galanta.*

EZAUGARRI EKOLOGIKOAK

Lurrari dagokionean gutxi behar izaten du baina karaitza maite du. Kutsadura ere nahiko ondo jasaten du eta horregatik dago nahiko zabaldua herri askotan. Normalki banaka edo multzo txikietan agertzen da. Aipatzekoa da nola erabili den itzal arbola bezala bide bazterretan. Intxaurrondoaren egurra gogorra, astuna eta lantzeko erraza da eta horregatik balio haundikoa zurgindegian.

Intxaurrari dagokionez, jateko balio du eta gero eta estimatuagoak dira aplikapen ugari bait dituzte.

Hostoak berriz, infusioan hartzen dira diabeteari aurre egiteko.

LEZOKO EKOLOGI TALDEA